

## **2017KO ABENDUAREN 18AN UDALBATZARRAK EGINDAKO OHIZKO BILKURAREN AKTA.**

Udaletxeko Bilkura Aretoan, idazpuruko eguneko arratsaldeko zazpirak eta hogeita hamar minutu direnean, Alkateak deituta eta lehen deialdian, Udalbatzarra elkartzen da, jarraian adierazten gai zerrendarekin ohizko bilkura egiteko:

1.- AURREKONTU OROKORRAREN 5/2017 KREDITU ALDAKETA.

2.- GAZTELEKUA ETA LUDOTEKARA ZUZENDUKO DEN LOKALA EGOKITZEKO LANEN ESLEIPENA.

3.- ALKATETZAREN ERABAKIAK.

4.- GALDE ERANTZUNAK.

### **ETORRITAKO UDALBATZARKIDEAK:**

#### **ALKATE-LEHENDAKARIA**

Joseba Izaguirre Arocena Jna. (Zegama Lantzen).

#### **ZINEGOTZIAK**

Maria Pilar Elorza Inchausti And. (Zegama Lantzen).

Izaskun Igoa Arizcorreta And. (Zegama Lantzen).

Ibon Zabaleta Urbizu Jna. (Zegama Lantzen).

Urko Gomez Ropón Jna. (EH Bildu).

Imanol Garmendia Iruretagoyena Jna. (EH Bildu).

Olaia Elorza Iñarra And. (EH Bildu).

Maria Luisa Gorrochategui Irastorza And. (EH Bildu).

### **EZ ETORRITAKO UDALBATZARKIDEAK:**

Juan José Gorrochategui Larrea Jna. (Zegama Lantzen). Ez etortzearen arrazoia ematen da.

Idazkaria, Igor Alustiza San Vicente.

### **1.- AURREKONTU OROKORRAREN 5/2017 KREDITU ALDAKETA.**

Kreditu gehigarrien bidezko kreditu aldaketaren 2017-KALD-000005-00 zenbakidun espedientea onartzeko proposamena.

Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espedientearen berri eman da, kreditu gehigarrien modalitatekoa.

Idazkari kontu-hartzaileak egindako txostena irakurri da. Bertan adierazten da aipatutako espedientea bat datorrela aplikagarria zaion legeriarekin, zehazki 21/2003 Foru Arauak, abenduaren 19koak, Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoak, 34. artikuluan ezarritakoarekin.

Era berean, Kontuen Batzorde Bereziak egindako aldeko irizpena eta onarpen proposamena irakurri dira.

Gaia aztertu ondoren, Udaltzako, bozketa egin eta gero, legezko gehiengoz, honako hau

#### ERABAKI DU

**Lehenengoa.-** Onartzea Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espedientea, kreditu gehigarrien modalitatekoa, proposamenean ageri den partidakako xehetasunarekin, kapitulukako laburpen honen arabera:

#### KREDITU GEHIGARRIAK

Kapitulua	Izena	Gehikuntzak
1	PERTSONAL GASTUAK	7.000,00
2	GASTUAK ONDASUN ARRUNT ETA ZERBITZUETAN	53.210,00
4	TRANSFERENTZIA ARRUNTAK	1.500,00
6	INBERTSIO ERREALAK	12.062,70
<b>KREDITU GEHIGARRIAK GUZTIRA</b>		<b>73.772,70</b>

#### FINANTZAKETA

Kapitulua	Izena	Zenbatekoa
4 (SARRERAK)	TRANSFERENTZIA ARRUNTAK	4.066,84
6 (GASTUAK)	INBERTSIO ERREALAK	(-)26.000,00
7 (SARRERAK)	KAPITAL TRANSFERENTZIAK	43.705,86
<b>GUZTIRA</b>		<b>73.772,70</b>

**Bigarrena.-** Jendaurrean ikusgai jartzea hamabost egunez, erreklamazioen ondorioetarako. Erreklamaziorik aurkezten ez bada, erabaki hau behin betikotzat joko da.

Espediente honek aurrekontua onartzeko ezarritako gainerako tramiteak jarraitu beharko ditu.

## **2.- GAZTELEKUA ETA LUDOTEKARA ZUZENDUKO DEN LOKALA EGOKITZEKO LANEN ESLEIPENA.**

Udalbatzarrak, 2016ko maiatzaren 17an egin zuen bilkuran, "Ormazpei S.L." enpresari, Zegamako Arau Subsidiarioetako 11. Eremuko –Olaberria II- A.20.11.3 partzelan 20 etxebizitza, garajeak eta trastelekuak eraikitze baimena ematea onartu zuen. Era berean, Udalbatzarrak 2016ko urriaren 17an egin zuen bilkuran, lanak bideratzeko aurkeztutako Egite Proiektua onartu zuen.

Zegamako Udalak, Ormazpei S.L. enpresak burutzen ari den 11.Eremuko –Olaberria II- A.20.11.3 eremuan, gazteleku eta ludoteka erabileratarako zuzentzea aurreikusten den lokal bat jasoko du, guzti hori, Udalbatzarrak, 2017ko martxoaren 20an hartutako erabakia eta bere aurrekariaren arabera.

Zegamako Udalaren aurreikuspena, lokal hori gazteleku eta ludoteka erabileratarako zuzentzea da, eta horrenbestez, eraginkortasun arrazoiak direla medio, lokal hori egoera erabilgarrienean jasotzeko izapideak bideratzea irizten da.

Helburu horrekin, etxebizitza eta lokalaren eraikitze lana burutzen ari den Ormazpei S.L. enpresari, Udalak onartutako lanen oinarritzko proiektuan adierazitakoaren arabera, lokalaren hasiera bateko egokitzapen lanen aurrekontua eskatu zaio, bertan, igeltseritza, kanpoko aroztegia eta intsonorizazio lanak bideratuz. Teknikoki lan horiek, adierazitako enpresak burutu behar dituela irizten da. Era berean, Eusko Jaurlaritzako Gazteria Zuzendaritzak lan horiek burutzeko 2017ko urriaren 27ko Ebazpenaren arabera onartutako 11.490,00 euroko laguntza justifikatu ahal izateko, presazkoa da lan horiek justifikatzea.

Horrenbestez, Ormazpei S.L. enpresak 85.000,00 euroko (BEZ barne) aurrekontua aurkeztu du, lanen esleipen proposamena eginez.

Lana bideratzeko aurrekontu nahikoa jasota dago 1.0000.622.01.334.00.2017 aurrekontu sailean.

Proposamena aztertu eta eztabaidatu ondoren, Udalbatzarrak, aho batez, honako hau erabakitzen du:

Lehena.- Aurkeztutako aurrekontuaren arabera, eta adierazitako lanak Ormazpei S.L. enpresak burutu behar dituela iritziz, lana Ormazpei S.L. enpresari esleitzea, 85.000,00 eurotan (BEZ barne).

Bigarrena.- Baimentzea eta xedatzea Ormazpei S.L. enpresaren alde, aurtengo ekitaldiari dagokion gastua, adierazitako kontusailaren kargura.

Hirugarrena.- Erabaki hau Ormazpei S.L. enpresari jakinaraztea.

### **3.- ALKATETZAREN ERABAKIAK.**

Idazkariak, azkeneko ohiko bilkuratik, Alkateak hartutako ebazpenen berri ematen du:

- 016/01117 erabakia, azaroaren 24koa, 5536 fakturen erlazioa onartuz, guztira 124.166,46 eurokoa.
- 017/01117 erabakia, azaroaren 28koa, Landa e Imaz S.A. enpresari frontoiko zorua konpontzeko lana esleituz (18.827,70 euro gehi 3.953,82 euro BEZ).
- 018/01117 erabakia, azaroaren 28koa, 5585 fakturen erlazioa onartuz, guztira 2.874,62 eurokoa.
- 019/01117 erabakia, azaroaren 28koa, Udal langileen nominen ordainketa bideratuz.
- 01/01217 erabakia, abenduaren 1ekoa, zenbait fakturen ordainketa bideratuz (Ignacio Ibarretxe (24az17): 873,62 euro eta Goierri Kirol Teknikoak (123 fk.zb.): 3.734,06 euro.)
- 02/01217 erabakia, abenduaren 5koa, Zegamako Udaleko Lan Eskaintza Publikoan barneratutako "herri baliabide, pertsonala eta kontuen administrariaren" plaza hornitzeko hautaketa prozesuari buruzko deialdia eginez.
- 03/01217 erabakia, abenduaren 14koa, 16 zenbakidun fakturen erlazioa onartuz.

### **4.- GALDE ERANTZUNAK.**

- Imanol Garmendia Iruretagoyena zinegotziak (EH Bildu), Ugarteko pistan egurzalea aritu dela adierazten du. Herri-bidea denez, fidantza jarri beharko lukelea adierazten du Alkateak, eta zentzu horretan, hau bideratuko dela adierazten da, bere kasuan, eragindako kalteen konponketa eginez.

- Imanol Garmendia Iruretagoyena zinegotziak (EH Bildu) egindako galderaren arabera, bilkurakideak, Partzuergoko larreen erabilerari buruz eztabaidatzen dute.

- Imanol Garmendia Iruretagoyena zinegotziak (EH Bildu) egindako galderaren arabera, Alkateak, udalerriko mugak GPS bidez burutzeko lanen azalpena egiten du. Zentzu honetan, aurrekontuan jasota badago ere, egitasmoak lan handia suposatzen duela adierazten da. Era berean, laguntzak eskatzeko aukerei buruz hitz egiten da, hauek lortzen saiatuko direla adieraziz.

- Bilkurakideak, ganbarako agiritegiaren egoeraz eztabaidatzen dute.

Aztertzeke gai gehiago ez dagoenez, hasieran aipatutako eguneko arratsaldeko zortziak

direnean Alkateak bilkurari amaiera ematen dio, esandakoa jasoarazteko, nik egiaztaturiko eta Alkateak sinaturiko akta hau egiten dudalarik.

**Eginbidea.**

Aurrean transkribaturiko akta, ..... orri dituela jasotzeko, zenbakidun paperan ..... zenbakitik ..... zenbakira eta Udalak emandako zenbakietan, ..... zenbakitik ..... zenbakira jasota geratu delarik.

Zegama, 2017ko .....k .....

**O.E./ VºBº**  
**ALKATEAK/EL ALCALDE**

**Diligencia.**

Para hacer constar que el acta que antecede tiene ..... folios, numerados del ..... al ..... en número de papel timbrado y del ..... al ..... en numeración dada por el Ayuntamiento.

Zegama a ..... de ..... de 2017.

**IDAZKARIAK/ EL SECRETARIO**